


# Genero-berdintasunean hezteko gida

## Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat

*Luixa Reizabal Arruabarrena*

XXI. mendean oraindik haur eta nerabeek generoaren ikusmolde sexistaren araberako uste, rol eta jokabide estereotipatuak garatzen dituzte. Hori ekidin ezean, haur eta nerabe horiek generoan oinarritutako diskriminazioa, indarkeria fisikoa, berdintasunik eza eta antzekoak normaltzat hartu edo/eta eragiteko arriskua dago. Zorionez, bada arriskua saihesteko biderik. Hain zuzen ere, hezkidetza delako hezkuntza mota. Androzentrismoa, matxismoa, sexismoa, homofobia, transfobia eta antzekoak desagerrarazi eta gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzea helburu duen hezkuntza-prozesua da hezkidetza, eta hori da, hain zuzen ere, gida honetan jorratzen den gaia.

Helburu hori lortzearren, hiru zatitan banatu dugu gida. Lehenengoan, hezkidetza izango da hizpide eta bi kapituluk osatzen dute. Lehenengo kapituluan hezkidetza lantzera bultzatu gaituzten arrazoiak azaldu eta zenbait kontzepturen esanahia argituko da. Bigarrenean, berriz, hezkidetzak bakea lortzeko tresna gisa duen garrantzia aztertuko da.

Genero-sozializazioa izango da hizpide bigarren zatian. Batetik, haurrek generoaren ikusmolde sexista eskuratzen duten prozesua deskribatuko da eta, ondoren, familian, eskolan, mintzairan, ikus-entzunezkoetan eta Interneten eta atsotitzetan, abestietan eta umorean ikusmolde hori nola transmititzen den azalduko da, ezinbestekoa baita transmisio-moduez jabetzea hura eten eta hezkidetza sustatu nahi bada.

Azkenik, hirugarrenen zatian, hezkidetza-prozesua zenbait hezkuntza-testuingurutan nola gauzatu behar den azalduko da. Hain zuzen ere, hezkidetza sustatzeko erabili ohi diren baliabideak aztertu, familian hezkidetza lantzeko baliabideak eskaini, eskola hezkidetzailea izan dadin egin beharreko aldaketak deskribatu eta mintzairaren erabilera ez-sexistaren nondik norakoak aztertuko dira.

**Jakintza-arloa:**
Hezkuntza - Soziologia

**ISBN:** 978-84-9082-194-7
17 x 24 cm
196 orr.
**PSP:** 19,00 €

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**
Argitalpen Zerbitzua
1397 posta-kutxatila
48080 BILBAO
Tfnoa.: 946 012 227
Faxa: 946 012 333
e-posta: editorial@ehu.eus
www.ehu.eus/argitalpenak

**Banatzailea:**
**ELKAR Banaketa**
Portuetxe, 88
20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Tfnoa.: 943 311 821
Faxa: 943 310 453 / 943 310 452
e-posta: eskaerak@elkar.com
www.elkar.com

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
ARGITALPEN ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL